



## 5. ildo: AISIALDIKO BEGIRALE ETA ZUZENDARI AGIRIA LORTZEKO EUSKARAZKO IKASTAROETARAKO DIRULAGUNTZAK

### 1. ZER DA DIRUZ LAGUNDUKO DENA

- Aisialdiko begirale agiria lortzeko ikastaroak.
- Aisialdiko zuzendari agiria lortzeko ikastaroak.

### 2. BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Getxon erroldatuta egotea.
- Ikastaroek euskaraz beharko dute izan eta eskatzaileak horretarako, hau da, ikastaroa jarraitu ahal izateko behar den euskara maila egokia beharko du izan.
- Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastegiekin eman behar dituzte ikastaroak.
- Ikastaroa bukatzeko egin behar diren praktikak Getxoko elkarte batean egin beharko dira.

### 3. ORDAINKETA MODUA

- Baldintzak betetzen dituztenei ikastaroaren %50erainoko dirulaguntza emango zaie. Agiria lortzeko ikastaroak bi ikasturtetan egiten dituztenei ikastaro bakoitzarengatik %50erainoko laguntza emango zaie.
- Eskararak aurkeztu ahal izango dira baina derrigor eskaera aurkezten duenean eskatzaileak ikastaroa amaitua behar du izan eta Jaurlaritzaren agiri ofiziala duela ziurtatu.
- Jaurlaritzaren agiri ofizialak 2019-2020 edo 2020-2021 ikasturteetan lortutakoa beharko du izan; ez da onartuko aurreko ikasturteetan (adibidez, 2018-2019 ikasturtean) lortutako agiriarengatik eskaerarik.

### 4.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

#### 4.1.- Dirulaguntza eskaera

**Dirulaguntza eskaera - Euskara Zerbitzua** izeneko inprimakia beteta (ikus eranskina), kontu korrontearen zenbakia (IBAN kodeari dagozkion 24 digitu) jasota utziz.

#### 4.2.- Gastuen ordainagiriak

Matrikula agiri originalak.gastuen jatorrizko ordainagiriak.

#### 4.3.- Titulu ofiziala

Eusko Jaurlaritzak luzatutako aisialdiko begirale edo zuzendari agiri ofizialaren kopia.

#### 4.4.- Praktiken ziurtagiria

Praktikak Getxoko elkarte batean egin direla ziurtatzen duen ziurtagiria.

#### 4.5.-Zerga betebeharrak egunean izatea

Eskatzaileak ziurtatu behar du zerga betebeharrak ondorengo erakundeekin egunean dituela:

##### 4.5.1.-Ogasunarekin

Zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen **Ogasuneko ziurtagiria aurkeztu beharko du** eskatzaileak. Ziurtagiri hau, dirulaguntza eskaeran **AITORTZEN DUT atala beteta ordezkatu ahal** izango du.

##### 4.5.2.- Gizarte Segurantzarekin

**Getxoko Udalak kontsultak egin ahal izango ditu**, dirulaguntza eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin zorrik baduen ikusteko, **baldin eta interesduna datu horiek kontsultatzearen aurka agertzen ez bada**; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

##### 4.5.3.- Getxoko Udalarekin

Getxoko Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzaileak zorrik ba ote duen Getxoko Udalarekin. **Eskatzaileak Udalarekin zorren bat badu Udalak interesdunari jakinaraziko eta zor hori ordaintzeko (edota zatikapena eskatzeko) epea emango dio.** Egoera epearen barruan zuzenduz gero, Udalak interesdunaren aldeko dirulaguntza ematea erabakiko du. Zuzentzen ez badu, ordea, Udalak ukatu egingo dio dirulaguntza, ez duelako onuraduna izateko baldintzetako bat betetzen.